

2.1. EGUZKI PLAKAK TEILATUAN

Aneren ikastetxeko teilatuan gauza berri bat ipini dute. Irakasleak esan die eguzki plakak (fotovoltaikoak) direla



01

Zertarako dira eguzki plakak?

- A. Internet izateko.
- B. Elektrizitatea lortzeko.
- C. Temperatura neurtzeko.
- D. Eguraldiari buruzko ikerketa egiteko.

02

Aneren gelan energia ikasten ari dira eta badakite petrolioa erretzea energia lortzeko bide bat dela. Petrolioa erretzeak arazorik sortzen du, zure ustez?

- A. Bai, kutsadura sortzen duelako.
- B. Bai, sute handiak gerta daitezkeelako.
- C. Ez, gaurko teknologia oso ona delako.
- D. Ez, enpresa espezializatuak egiten dutelako.

03

Petrolioa erregai fosil bat da. Hurrengoetatik zein da beste erregai fosil bat?

- A. Egurra.
- B. Ikatza.
- C. Kartoia.
- D. Harria.

04

Gaur egunean, energia berriztagarriak ere erabiltzen dira. Aipatu hiru energia berriztagarri mota.

05

Aipatu energia berriztagarrien abantaila bat

- A. Gas toxikorik ez dute sortzen.
- B. Edonon eta edonoiz aurkitu daitezke.
- C. Ez da garraiatu behar, bakoitzak berea sortzen du.
- D. Oso erraza da energia lortzea eta energia gehiago lortzen da.

06



Ikasgelan ura berotu nahi dugu Eguzkiaren energia erabiliz. Gailu hau lortu dugu eta beroa hobeto xurgatzeko, margotu behar dugu.

Zer kolore erabiliko dugu?

- A. Beltza.
- B. Zuria.
- C. Horia.
- D. Grisa.

07

Ikastetxean energia aurrezteko beharra eztabaidatu dugu.

Hurrengo taulan ekintza batzuk agertzen dira. Seinalatu kasu bakoitzean zeintzuk dira egokiak energia aurrezteko eta zeintzuk ez.

	EGOKIAK DIRA	EZ DIRA EGOKIAK
A. Kalefakzioa piztuta dagoenean leihoak zabaltzea.		
B. Gelatik irtetean argiak itzaltzea edo amatatzea.		
C. Paper birziklatua erabiltzea.		
D. Ordenagailua piztuta izatea beti.		
E. Ikastetxera oinez edo txirrinduz joatea.		
F. Kontsumo gutxiko bonbillak ipintzea.		

08

Aneren etxean hozkailu bat erosi dute, eta etiketa hau du:**Zer adierazten du etiketak?**

- A. Energia aurreztu behar dela.
- B. Energia-kontsumoa txikia dela.
- C. Energia-kontsumoa ertaina dela.
- D. Energia-kontsumoa handia dela.